

GOGOEN-BEREIZKETA (I)

SAKKERA

Zelan jakin lei sifiistedun batek, gure kasuan kristinau batek, une bakoitzean zer egin bear dauan, zuzen jokatu ta Jainkoa goretsi ta atsegindu dagian?

Guztiok dakigunez, kristaua gizona da eta ondo ezagutu behar ditu gizon-izate orreri dagokiozan atalak; beste alderdi batetik, sinisteduna da... eta sinismen orren sustraien ezaguna izan bear ko dau. Eta gainera, Eleizan eta munduan bizi bear ko ditu bere gizon-izate ta fede-bizitza orreik; au da, munduaren eta Eleizaren egoeren jakitun izan bear ko da bere mixiolari bizitza aal danik eta obetuen bete dagian. Lau mailla oneitan - pertsona, fededun, eleiztar eta mundukoa- benetako sakontasunezko giro baten sartu bearra dauka bertako asmoak, gogoak, gurariak, ekintzak eta ondorengoak aal diranik eta obetuen neurtuak, argituak eta, azken baten, onartuak edo-ta kritikatuak izan daitezcan.

Jainkoak pertsona bakoitzari, eta guztioi, bereziki deitzen dausku, Berak aukeratutako Erri lez, bakoitzak eta guztiok geure bokazinoia ezagutu, onartu ta mundu guztiaren onerako ta Bere Aintzarako bizi dagigun.

Au onela izanik, esperientzi onetan dauka bere jaiotza gaur ikusiko dogun GOGOEN-BEREIZKETA onek.

Bereizgarri edo aztergarri diran gogoen, erakundeen, ideolojien eta ekintzen bereiztzaille ta banatzaillle izan bear gara. Orretarakoxe emon izan dauskuz Jaunak adimena, sena ta zentzuna. Dan-dana bereizi, aztertu, banatu, bakandu, banandu ta zeiaru dagigun gogoak-bereizteko doguzan irakaskintzen laguntzarekin.

Dana bearko dogu eta adi-adi egon bearko gara Ian au egiterakoan. Ez da txantxetan ibilteko gauza, ez. Therrien'ek dinoskunez: «gogoen-bereizketa bat da, baina zati-askoduna; gizonari, baina baita be Jaungoikoari dagokiona; pertsona bakoitzarena, baina Eleizarena be bai; gaurkotasunez jantzirikoa, baina Betiko Salbamenaren Histori bakarrean egifia; denbora edo aldi baten egitekoa, baina betikotasunerako egina eta betikotasuneko partaide dana» («*Le discernement dans les ecrits pauliniens**. Gabalda, Paris 1973).

S. Bernardok «rara avis in terram» deitu eutsan gogo-bereizketeari («*In circumcissione Domini*" MX 183, 142).

Ona emen, bada, gure betebearra: Garrantzisko egoera baten, edo-ta aukera egoki bat egiterakoan, zelan ezagutu Jainkoaren naia, bere oinkadeen urratzetatik ibilliz?

I. KRISTAUA IZATEKO DEIARI BIZITZAREN BIZITASUNA DAGOKIO

Kristauak izatera deituak izan bagara, argi dago oraindino ez garala eldu itz orretan ezkutaturik dagoan egia osora. Eta izatera izanaz eltzen da. Baina izateak mugimendua daroa bere barruan. Bizitzaren bidez eltzen gara izan bear garanera. Bizirik ez dagona, illik dago. Bizitzako bideetatik zear ez dabillena bere izatearen sustraien aurka dabil. Eta kristau bizitza Kristogan eta Kristoren lez bizitzen aalegintzean datza: bai gogoetan, sentipenetan, ekintzetan, besteekin doguzan ar-emonetan... bai gauzakaz, bai munduagaz, eta bai gizarteagaz.

Gure kristau-bizitzaren asiera, Paulo'k dinoskunez (Errrom 3,6,8.) Jesukristo gure Jaunagan dogun fedean, bateoan eta E. Santuaren ixurtzean dago oinarriturik. Fedea, itxaropena ta maitasuna. Jesusengan dogun fedea: bateoaren bidez, Jesusen eriotzean eta berbizkudean sartzen gara itxaropenez beterik; eta E. Santuaren ixurtzea geureganaturik, bidelari lez goiaz aurrerantza, geure zeruko Aita oso-oso dogun lez, oso-osoak izaten aaleginduz... Eleizeangorputzbat osoturik, argiaren seme lez ibiliz eta pekatuaren eriotzatik Kristoren bizitza barrira aldaturik... munduko gatzeta ta argia izatera deituak gara. Eta au onela izanik, bear-bearrezkoa dogu gogo-bereizketako ikaskizunetan oituraz bizitzea ta gai orreitan ikasle jator lez jokatzeta.

Eta, puntu au amaitzeko, ez daigun pentsatu gogoak-bereiztea gauza sinplea ta errexa danik, ez orixe! Begira: oraintxe bertan esan dogu zelan kristauaren izatea irukote baten oinarriturik dagoala, au da: Jesusengan dogun fedean, bateoan eta E. Santuaren ixurtzean. Baina baita be kontuan izan bear dogu, gogo-bereizketara doian kristaua beste irukote baten illuntasunean sarturik bizi dala: 1) Ikusten ez dauan Jaungoiko baten naia betetzen aalegindu bear dalako. 2) Deabruaren edo-ta Txartasunezko Espirituaren indarrak ta maltzurkeriak sortzen dauskun illuntasunpean gabizalako. S. Paulok dinosku: «Jantzi egizue Jaungoikoaren iskillu (arma) soinekoa, deabruaren maltzurkeriei gogor egiteko» (Ef. 6,11). Eta orain dinoskuzan itzak askoz be arrigarriagoak dogu, espirituari dagokion burruka au seriotasun guztiagaz artu dagigun. Ona emen Paulo'ren itzak: «Gure burruka ez da aragiaren edo odolaren aurka-ta, aaltsuen, indartsuen, mundu illun onetako nagusien, eta zerupean dabizan espiritu gaiztoen aurka baino. Artu egizue, ba, Jaungoikoa arma-jantzia, egun txarrean gogor egin daikezuen, eta guztia irabazita gero, sendo iraun dagizuen» (Ef. 6,11-12). Eta 3) Geure pertsonen dagokion illuntasuna: Sarritan ezin izaten dogu argi ikusi geure biotzaren naia, gure ekintzen ondorioak ezin doguz neurtu

(Ex. 32, 31; 2Sam. 12,7); dei asko ta ezbardifiak entzuten doguz gure barman eta kezkatuak izten gaitue geure biotzetan sorrerazoten dauskuen oiartzunekin (Sal 73, 2.15). Nai ta naiezko, bear-bearrezkoa dogu, bereizketa bat egiterakoan, nondik-norantza ibili bear garan, egoki eta zuzen jokatu dagigun.

Pablo VIgnak: (*Octogesima advenientfen* 37. Carta Apostolica. LXXX Aniversario de la «RERUM NOVARUM») «En el corazon del mundo permanece el misterio del hombre, que se descubre hijo de Dios en el curso de un proceso historico y psicologico donde luchan y se alternan presiones y libertad, opresion del pecado y soplo del Espiritu».

II. GOGOEN-BEREIZKETA JAUNAREN ITZEAN ZEAR

Asiera baten auxe esan daikegu gogoen-bereizketari buruz Jainkoaren Itzean dakusgunaz: ekintzetan eta ekinetan aurkitzen dogula bereizketa ori teoria zeatz-meatz baten geiago. Aide batetik, Jaungoikoak daraman bereizkuntza berezia Israel'en edo Elizaren edestian edo historian; eta beste aide batetik begiraturaz, gizonak eta gizonak fedearen eta Salbamen-Misterioan sartzeko egiten dabena... munduaren eta Elizaren erdian bizi frutu ugariak emon dagiezan.

a) ITUN ZAARREAN:

Jainkoak bere aukerak egiten ditu: Adan (As. 2,17), Abraham (As. 12,4), Israelgo Erria bera (Ur. 19,8; 24,3; Ebazleak 24,15); (Dt. 28, 1-15...) eta baita errege ta buruzagiak ere.

Eta Israel'en, Jainko Erri aukeratuaren zeregina onetantxe datza: Bere baldintzak eta arauak onartzean; agintzariak lortu arte Bere zuzendaritzapean ibiltzean; Bere mesedeakaitik eskerrak emotean; eta Erri lez dauan nortasuna Jaungoikoak Bere Erri lez aukeratzekoan jatorkola konturatzean eta, aurrerantzean ere, Jainkoaren kerizpean eta gidaritzapean bizi bearko da Erri lez iraun nai badau, beintzat.

b) ITUN BARRIAN:

Azaltzen gagozan «Gogoen-bereizketa» au, Itun Barri osoan zear eta, batez be, S. Paulon ikusiko dogu.

1) *Sinoptikoetan:*

Gogoen-bereizketari buruz *itz bereizirik ez badago ere onetantxe egorigo litzateke arlo oneri dagokion sustraia:* Nazaretoko Jesusen pertsonan eta bere ekintzetan Jainkoaren Espirituaren eragina ikertzean, ezagutzean ta autortzean. Eta, era berean, Jesusen pertsonan eta bere ekintzetan txartasunezko espirtuaren ondamendia egiztatzean.

2) *Apostoluen eginetan:*

Ona emen argi daukaguzan gogoen-bereizketarako seinaleak: Jainkoaren Espirituaren indarra ta zeregifia eta, onegaz batera, Berak damoskun illuntasunbako argia. Espiritu onen bideak arrigarriak dira beti, eta batzuetan ulergaitzak, baina sekula ere ez naastatzaille, iskanbillari edo-ta zalapartatzailleak, ez. Bere ekintza Elizan diardu egiten eta Eliza orren bakearen maitale dogu.

Bere (E. Santuarena) *ekintzarik bikainena eta bere betebearrik nagusiena onetantxe datza; JESUSEN IZENA TA IZANA EZAGUTZEN EMOTERAKOAN ETA ORIXE BERORI ALDERDI GUZTIETARA ZABALTZERAKOAN, ALDARRIKATZERAKOAN.* (Ap. Eg. 1,15-25; 6, 1-6; 10 y 11, 13, 1-3; 15).

3) SAN PAULOGAN:

Guk emen darabilgun itz au, «Gogoen bereizketa», bein bakarrik jatorku onela Jaunaren Itzean; ementxe aifi zuzen be: (Kor. Itik. 12,10) Karismak edo E. Santuaren doaiak izendatzerakoan eta aztertzerakoan... onelaxe deitzen dautso Paulok euretariko bateri: *otXkos* 8e *SicxKpiaeu*; *TEveoiLficoov* «alii discretio spirituum»: discernimiento de espíritus: GOGOEN-

BEREIZKETA.

Onez gafiera, beste itz bat ere asko erabilten dau Paulok. Auxe da: elc; TO 8oKijia^eiv «ut probetis» (Errom. 12,2).

Aditza onek SoKiLia^ew -ek, bereizketa baten zentzun nagusia damosku adierazoten, au da: ikertu, aztertu, arakatu, egiztatu, zeaztu, dastatu, txestatu...

Ba dagoz beste itz batzuk ere antzerako esannaia dabenak: (Au da: banandu, aukeratu, naiago izan, epaitu, erabagi...) eta (Au da: bankuntza, aukerakuntza, erabagia, epaia...)

Eta etimologiari dagokion ataltxo au amaitzeko, ba dogu antzerako beste itz batzuk Pauloren idazkietan zear. Ona emen: Flp 1, 3-11; Kol 1, 9-14; Ef 1, 15-23; 4, 11-16; Erromo 12, 1-8.

Aaztu baifio leenago gauza bat esan bearrean nozue, eta ari garan mailla onetan, garrantzi aundikoa gaifiera: Kristauak gaur egiten dauan bereizketa onen sustraia, azken-aldietako (eskatologian) epaiean finkaturik dagola. Bai, egitan, kristau-bizitzak ezaugarri berezi bi ditu: bata, fedea onartzean jatorkon justiziaren aldeko konpromisoa; eta bestea, laster (Tesalonikakoei Paulok egindako leenengo idazkia) etorri bear dan Jainkoaren epaia. Azken-epaia dogu, ain zuzen be, azterketa eta gogo-bereizketa onen laburpena edo bilduma. (Kor Itik. 3,13; St. 1,12) (Tes. Itik. 2,4: tro 8oKijid^ovxiTO^Ka7t8iac;i^1]u03v) Au dala-ta, Jainkoa da -Historian zear- «gure biotzak azterzen dituan Jainkoa*.

Guzti au onela izanik, gogoak-bereiztea Eleizaren denborarako ekintzarik beinena dogu. Bai, Kristoren Eriotz eta Berbizkundearen indarrei esker sortzen jakun Eleizarena eta azken egunean osotuko dogun betirako Eleiza, Zeruko Jerusalemena. Egi eder au S. Paulo berak dinosku itz oneikin: -Azken aldietako Eleizaren ezaugarria dogu» (Kor. Itik 10,11).

Berak, Paulok dinoskunez, eta guztiok dakigunez, Tentaldiak, jasarpenak eta eraso aldiak, «fedea garbituko» dauskue,

«itxaropenean sendotuko gaitue eta «Jainkoaren semei dagokion maitasuna izango dogu gure biotzetan»: («Beraz, sinistez zindotuta, Jaungoikoaren bakea daukagu Jesukristo gure Jaunaren bidez. Beragaitik, grazi onetara sartzeko atea be zabaldu egin jaku, ta jainko-semeen aintzaren ustez poztuta gabiz. Eta au bakarrik ez, naigabeetan be pozik gagoz: naigabeak eroapena, eroapenak onoimen sendoa, ta onoimen sendoak itxaropena dakarrela jakinik. Eta itxaropen onek ez dau iruzurrik egiten: E. Santuak emon dauskun Jaungoikoaganako maitasuna gure biotzetan ixurita dago-ta» (Errom. 5, 1-5)-

Kristauak, anaiok, ez dauka zertan kikildu, burua makurturik ibilliz, bizitzak dakarkiozan leiaketean aurrean, ez; bestetara baino: tentaldi ta naigabe guztien erdian Jainkoaren naia betetzeko prest egongo da, iskanbilla guzti orrein erdian benetako «gogo-bereizketa» bat-eginik, eurretan Jaunaren borondatea agertu daiten eta, onela, Jaungoikoaren egizko Salbamenaren pedagogi baten barruan onartuak izan daitezcan. Burruka santu au be, azken-aldietako burrukaren ezaugarri ta aurrelari dira. Eureri esker, «Kristogaz ilten bagara... Beragaz biziko gara; Beragaz sufritzen badogu... Bere Erregetzako izango gara.

Moral alderditik begiratu ezkerro, «gogo-bereizketa» onek •Jaungoikoaren naia ezagutzera ta betetzera eroango gaitu. Eta ezaguera onen bidez, geitzen joan bear gara geure fedezko, itxaropenezko ta maitasunezko bizitza.

Sartu gaitzean orain, zuzen-zuzenean eta S. Pauloren eskutik, gogo-bereizketa bateko ardatz-nagusiak ausnartzera.

S. Juanek, bere leenengoko idazkian, zuurtasunerako dei bat egiten dauku kristinauei: «Guztiz maiteok: ez egiozue sinistu edozein espirituri: *aztertu egizuez, ostera, espirituak, Jaungoikoagandik ete diran: gizartean sasi-profeta asko agertu dirata* (Jn Itik. 4, 1-2).

GOGO-BEREIZKETA BIKAIN BATEN EZAUGARRIAK, §,, PAULOREN ERITZIZ

1.- Emaitzak edo frutuak

«Beraz, auxe diratsuet: ibilli zaitezze Gogoaren eraz, eta ez dozuez beteko aragiaren gurariak. Aragia espirituaren aurka diardu-ta» (f| yap o^sap£ fem[^]vjiEi x^a^^a T⁰^ Kvev[^]iaioc;) '•Espirituaren gurariak, barriz, aragiaren aurka»: (TO 8e Tcve0u,a Xaxa rfji; aap%o<;) (Gal. 5, 16-17).

«Aragiaren egitadak agirian dagoz; Emen: aragikeri, lizunkeri, zikinkeri, sasi-jaungoikokeri, sorginkeri, gorroto, eztabaida, ardurakeri, asarre, burruka, makurkeri, alderdikeri, ikusi-ezin, gizerailtza, moskorkeri, sabelkeri ta olakoak.

Espirituaren frutuak, ostera, onexeik dira: goi-maitasuna, poza, bakea, biotz-aundia, biotz-zabala, ontasuna, sinismena otzantasuna, neurribidea... Jesukristorenak diranak, aragiabere grina ta zalekeriakaz gurutzean josi dabe» (Gal. 5, 19-24).

2.- Elelz-batasuna:

Espirituari dagokiozan benetako doaiak Eleizaren eraikigille dira: «Beraz, zuek, gogo-doaien maitatzaille zareenok, arduraz lortu egizuez ugari Elizaren onerako» (Kor Itik 14,12). -Jaungoikoa ez da naaste Jaungoiko-ta, bake-Jaungoiko baino» (Kor. Itik. 14, 16). Kontuan izan dagigun, bada, karisma edo goi-doai guztiak Eleizaren onerako ta aberastasunerako emonak izan jakuzala.

3.- Aultasunean liidartsu agerte-

Leentxoago esan dogunez, Espiritua aal-izatez jantzirik agertzen da bere egitadeetan: mirariakaz, Jaunaren Itza aldarrikatzeke ziurtasunagaz eta jasarpen edo eraso-aldiei eusteko indarragaz: «Eroapen aundiaz, mirariakaz, eta egintza itzel eta miragarriakaz egin nebazan zuen artean Apostol-ezaugarriak» (Kor 2tik 12, 12)

Apostoluak, zenbat eta aulagotzat euki bere izate osoa, AINBAT ETA SINESGARRIAGOAK BIURTZEN DIRA SEINALE

ONEIK: «Berak, Jainkoak, ostera, auxe esan eustan: Naikoa dozu neure grazia, *makaltasunean agertzen da bete-betea nire indarra-ta. Au dala-ta, Kristogaitik geisoaldietan, irainetan, bearrianetan, erasoaldietan, larrialdietan, poz-pezik nabil: MAKALA NAZALA USTEDODANEAN, INDARTSUNAZ-TA*» (Kor. 2tik 12, 9-10).

4,- jaliiko deiaren zurtasuna elizaren iienpetasuiieaii

Alderdi batetik, Jainkoa da tjokazino edo Berak egiten dauan «deiaren ziurtazaille». Paulok, ez gizonokandik, ezta gizonen bitartez be, Jesukristoren eta Men artetik Bera biztu eban Jaungoiko Aitaren aukeraz baino, Apostolu nazan onek... (Gal 1,15).

Baina, beste alderdi batetik, Jaungoikoaren dei ori, *Elizaren eta bertako arduradunek baietzaz egiztatua ta legezkatua izan bear da*: «Baina nire amaren sabeletik banandu ta bere graziaren bidez dei egin eustanak, bere Semea neugan agertu nai izan eban, Aren Barri Ona atzerrietan zabaldu negian.

Une aretatik, aragiri ez odolero jaramonik egiteke, eta ni baino leen Apostoluak ziranen billa Jerusalemenera igo bagarik, Arabia'ra joan nintzan... Gero, iru urte ondoren, Pedro ikustearren, Jerusalemenera igo ta amabost egun aregaz egon nintzan... Bereala, Siria ta Ziliziako lurraldeetara joan nintzan... *Amalau urte geroago, Barrero Jerusalemenera igo nintzan, Bernabegaz, Titobegeugazeroanik. Goitik argituta igo nintzan, ETA ATZERRITARREN ARTEAN IRAGARTEN DODAN BARRI ONA ANGOAI ETA BATEZ BE ZERBAIT ZIRANAI AZALDU NEUTSEN, NIREIBILKETANALPERRIK NIARDUANEDOJARDUN IZAN NEBANJAKITEKO*»: (Beste Barri-On bat iragarten nebala inoen-eta) (Gal 1, 15-18. 2, 1-2).

5-- Argla ta foakea

Espirituaren doaiak ez dira indar-itsu batzuk, ez; ikusi dogunez, ez dira naasta-maastetzailleak, ez; eta egi oneik, bai

kanpora agertzen diran seinaleentzat, bai barruan sentitzen doguzan igidura edo eragientzat ere balio dabe: «Jaungoikoagandik dan atsekabeak, damu osasungarria ta sendoa sortzen dau; lurkoiakandik sortzen dan atsekabeak, barriz, eriotza dakar» (Kor. 2tik 7,10).

«Aragiaren zalekeria, eriotza da; gogoaren guraria, barriz, bizitza ta bakea» (Errom 8,6).

6.- Anaitasumezko foaiasuna

Ona emen Espirituaren seinalerik 2iurrena ta garrantzitsuena.- Gizonen eta aingeruen berbeta guztiak jakitearen gainetik dagoana; mendiak leku batetik bestera aldatzeko besteko sinismena eukitearen gainetik dagoana, eta neure ondasun guztiak banantzetik eta neure gorputza sugarretan jartzearen gainetik dagona: *MAITASUNA* (Ikus. Kor. Itik. 13).

Maitasun onek, Elizaren batasunerako ta aberastasunerako emonak diran beste doai eta karismak ondo be ondo errespetatzen ba daki: «Grazia, barriz, askotarikoak dira, baina E. Santua, bat bera; askotariko eginkizunak dira, baina Jauna, bat; askotariko eginbideak dira, baina Jaungoiko berbera da guztietan dana egiten dauana. Eta bakoitzari E. Santuak irakasten dautsana, guztien onerako da» (Kor Itik. 12, 4-7).

7.-Jesus Jauna da!., dino espirituak:

Gogo-bereizketearen gaiturrera eldugara: Jesusen aurrean ezin da ixillik egon, ezinezkoa da erabagi bat ardu batik gelditzea: «Orregaitik, ba, jakitun jartzen zaituet orain: Jaungoikoak eraginda diardunik inok be ez dautso Jesuseri biraorik egiten, eta inok be ezin daike Jesus Jauntzat autortu, E. Santuak eragin ezik» (Kor. Itik 12,3).

Jesus Jauntzat autortzean ez dogu bakarrik eta ezta batez be formula uts eta otz bat esaten, ez; autormen ori egiten dogunean Bere pertsonaren ezkutapena, Bere Jainkotasuna ta Beragan sinisterra ta Bera maitatzera bultzatzen gaituan Espirituaren indarra ta eragifia autortzen doguz.